# INFORMAZIO-ORRIA: ABELTZAINTZAKO JARDUERA KALTEGABEAK

## Zer dira abeltzaintzako jarduera kaltegabeak?

Ekainaren 23ko 148/2003 Foru Dekretuak ezartzen du zer baldintza tekniko bete behar dituzten abeltzaintzako instalazioek Nafarroako Foru Komunitatean ingurumenaren aldetik. Haren 11. artikuluaren arabera, honako hauek dira abeltzaintzako jarduera kaltegabeak:

Ingurumen baimenik edo jarduera sailkaturako lizentziarik behar ez duten abeltzaintzako instalazioak, abenduaren 16ko 17/2020 Foru Legearen arabera.

Instalazio horiek ezartzeko, udalen ordenantzetan ezarritako betekizunak eta baldintzak bete beharko dira. Udalen ordenantzek ez badute horri buruzko araurik ezartzen, instalazioa ezarri aurretik, udalak berariaz emandako baimena lortu beharko du titularrak. Baimen horretan, instalazioaren kokapena eta abereen espeziea eta kopurua zehaztu beharko dira.

## Nolakoak izan daitezke abeltzaintzako jarduera kaltegabeak?

**- <u>Etxeko abeltzaintza-instalazioak</u>** (lehen, etxeko eskortak). Gehienez edukiera hau dute:

| **ETXEKO ABELTZAINTZA INSTALAZIOEN EDO INSTALAZIO KALTEGABEEN GEHIENEKO EDUKIERA** (17/2020 Foru Legearen 3. eranskinean arautatako tamainara arte), animalien kopuruari dagokionez | |
|---|---|
| ARRAUTZATARAKO ETA UGALKETARAKO OILOAK | < 100 |
| OILASKOAK | < 200 |
| UGALKETARAKO AHATEAK | < 100 |
| GIZENTZEKO AHATEAK | < 100 |
| GALEPERRAK | < 400 |
| EPERRAK | < 400 |
| USOAK | < 400 |
| FAISAIAK | < 200 |
| OSTRUKAK | < 10 |
| GIZENTZEKO OSTRUKAK | < 20 |
| GIZENTZEKO ZERRIAK | < 20 |
| UGALKETARAKO ZERRAMAK | < 5 |
| ZERRI AZIENDA MISTOA | > 3 AzLU |
| ESNETARAKO BEHIAK (1) | < 3 |
| HARAGITARAKO BEHIAK (1) | < 4 |
| GIZENTZEKO BEHIAK | < 6 |
| ARDIAK ETA AHUNTZAK (1) | < 30 |
| ESNETARAKO ARDIAK ETA AHUNTZAK (1) | < 30 |
| UNTXIAK (1) | < 40 |
| ZALDI HELDUAK | < 5 |
| GIZENTZEKO ZALDIAK | < 6 |
| AKUIKULTURA | < 500 tona urtean |
| MISTOA, HAINBAT ESPEZIE | < 5 AzLU |
| (1) Ugalketarako abereak. | |

**- Ustiategi estentsiboak**: Abeltzaintza estentsiboaren hainbat definizio daude. Estentsibotzat hartu nahiz ez, etxeko abeltzaintza instalazioen edo instalazio kaltegabeen gehieneko edukiera gainditzen bada (ikusi goiko taula), jarduera-lizentzia bat izapidetu behar da, eta hartan justifikatuko dira ekoizpen-sistema, instalazioak eta simaurrak kudeatzeko plana.

## Abeltzaintzako ustiategi kaltegabea izapidetzea

- **- UDALEAN**
  - Udal bakoitzak ezarritako agiriak aurkeztu behar dira, udal-ordenantzei jarraikiz.
  - **Abeltzaintzako jarduera kaltegabea eskatzeko eredua** erabil daiteke.
  - Udalak jarduerarako udal-baimena eman behar du.

- **- ABELTZAINTZA ZERDITZUAN**

  Honako hauek aurkeztu behar dira:

  - Abeltzaintzako Ustiategien Erregistroan ALTA EMATEKO ESKAERA, ereduaren araberakoa.
  - NANa edo IFKa.
  - MEMORIA: Jardueraren azalpen laburra.
  - TOKIA: Koordenatuak edo lurzati-zedula.
  - Abeltzaintzako jarduera kaltegaberako beimena, udalak emana.

  Egiaztatuko da 31/2019 Foru Dekretuan ezarritako distantziak betetzen direla eta, abeltzaintzako ustiategi estentsiboen kasuan, instalazioak baduela abereak mugitu ezinik edukitzeko “mahuka” eta “harrapagailua” edo hesia, behar denerako.

  ABELTZAINTZA ZERBITZUAK IKUSKATZEA: Abeltzaintza Zerbitzuko albaitariek instalazioak ikuskatzen ahalko dituzte abeltzaintzako ustiategiari alta eman aurretik eta abereak sartzea baimendu baino lehen.

**Harremanetarako datuak:**

- Abeltzaintzako Ustiategien Erregistroa (REGA): eskabide-eredua.
- **Abeltzaintzako jarduera kaltegabea eskatzeko eredua**, udalean aurkeztu beharrekoa.

Harremanetarako helbidea:
Abeltzaintza Zerbitzua
Animalien Ekoizpenaren Atala
González Tablas k. 9, 2. solairua -
31005 Iruña (Nafarroa)
Telefonoak: 848 426 420 / 848 423 922
Helbide elektronikoa: produccion.animal@navarra.es

| ***ABELTZAINTZA-JARDUERA KALTEGABERAKO BAIMEN-ESKAERA*** | ***SOLICITUD AUTORIZACIÓN PARA ACTIVIDAD GANADERA INOCUA*** |
|---|---|

NIK/Yo:____________________________________________________________

NAN/D.N.I.:_________________________________________________________

HELBIDEA/DIRECCIÓN:________________________________________________

TELEFONO ZKIA/nº: __________________________________________________

☐ En propio/ Norberaren izenean

☐ Como representante legal de la sociedad/ Sozietatearen legezko ordezkari gisa

________________________________________con NIF/ IFZrekin: _________________

**ADIERAZTEN DUT/ DECLARO:**

1. Horren arabera titularra izango naiz:

☐ **Etxeko abeltzaintza-instalazioa**

ezaugarri hauekin:

Azienda mota: ______________________

___________________________________

Buruak: ___________________________

Kokapena:

Pol.:_______Partz.:___Azalera: ___________

Pol.:_______Partz.:___Azalera: ___________

Pol.:_______Partz.:_Azalera: _____________

Titulartasuna:

☐ Jabetza

☐ Errentan

☐ Komunala

2. Ez daukat obra-lizentzia behar duen azpiegiturarik.

3. Jarduera kaltegabea dela eta ez duela ingurumen-baimenik behar, ingurumenean eragina duten jarduerak arautzen dituen 17/2020 Foru Legearen arabera.

4. Jarduera egiteko indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzak betetzeko, bereziki jarduera arautzen duen 31/2019 Foru Dekretuan ezarritakoa, konpromisoa hartzen du.

1. Que voy a ser titular de una:

☐ **Instalación ganadera doméstica**

con las siguientes características:

Especie/Especies: ___________________

___________________________________

Nº de cabezas: ______________________

Ubicación:

Pol.:_______Parc.:___Superf: ___________

Pol.:_______Parc.:___Superf: ___________

Pol.:_______Parc.:_Superf: _____________

Titularidad finca:

☐ Propiedad

☐ Arrendamiento

☐ Comunal

2. Que no dispongo de infraestructuras que precisen de licencia de obra.

3. Que la actividad se considera inocua y no está sometida a autorización ambiental conforme a la Ley Foral 17/2020 reguladora de actividades con incidencia ambiental.

4. Me comprometo a cumplir los requisitos establecidos en la normativa vigente para realizar la actividad, en particular lo establecido en el Decreto Foral 31/2019 que regula la activida

**ESKATZEN DUT/ SOLICITO:**

| | |
|---|---|
| **Udalaren baimena, jarduera kaltegabe gisa, Abeltzaintza Ustiategien Erregistroan (REGA) alta emateko eskaera izapidetu ahal izateko, 148/2003 Foru Dekretuaren 11. artikulua.** | **Autorización municipal como actividad inocua para poder tramitar la solicitud de alta en el Registro de Explotaciones Ganaderas (REGA), de acuerdo a lo establecido en el art. 11 del Decreto Foral 148/2003.** |

Data/Fecha

Firma/sinadura: